

# TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza info

Asteartea, 2011ko azaroaren 8a. VIII. urtea. 2.303. zenbakia. [tolosaldea.hitza.info](http://tolosaldea.hitza.info)



Zizurkilen izan zituzten arazoak ikusi daitezke lehen irudian, eta beste argazkian, Tolosako Usabal inguruan dagoen enpresa batetara ere atzo, ura sartu zela ikusi daiteke. A. ETXANIZ-AJMAZ

## Euriteak kalte handiak eragin ditu

Tolosaldeko eta Leitzaldeko herrietan kalte ugari izan dira asteburu honetan; ibaiak eta errekek hainbat lekutan atera dira eta luiziek hainbat arazo sortu dituzte errepideetan

Zizurkilen lau auto eraman ditu ibaiak, eta Tolosako Amartz auzoan bikote bat autotik atera behar izan zuten; Ibiur urtegia %10ean hazi da bi egunetan **4-5**

### KUPekoak «oso sentsazio onarekin» bete dute Europako Sari Nagusiko erronka

Suediako Svenska Kammarkören abesbatzak irabazi du lehiaketa; Tolosako Leidor aretoa lepo bete zen larunbateko saioak entzuteko **2**



Simon Phipps zuzendaria saria eskuratzerakoan. LURKIZU

### Muñozek eta Arbillagak irabazi dute Ikaztegiako Herri Krosa

142 lagunek hartu zuten parte larunbateko XXI. lasterketan; Igor Maiz eta Tina Agirre izan ziren helmugara iristen lehen ikaztegiarrak **6**

#### PLAN PREVER PEUGEOT 2.600€ ZURE KOTXE ZAHARRARENGATIK

P-5008



TOLOSA MOTOR, S.A. PEUGEOT KONTZESIONARIOA

San Esteban auzoa, 14-A • 20400 TOLOSA • Tel.: 943 650 337 / Faxa: 943 652 938 • [tolosa@tolosa.redpeugeot.com](mailto:tolosa@tolosa.redpeugeot.com)





Goian, KUP abesbatza euskalduna. Beheran, Svenska Kammarkören abesbatza irabazlea. I. URKIZU

## KUP taldea «gustura eta oso pozik» agertu da, egindako lanarekin

Svenska Kammarkören abesbatza suediarrek irabazi zuen Abesbatza Kantuaren Europako Sari Nagusia

### Itzea Urkizu

Egindako lanarekin gustura agertu dira KUPeko abeslari euskaldunak, taldeko Aitor Imaz tolosarrak azaldu duenez. Kamerianoan zain egon ziren KUP abesbatzako kideak, euren txanda iritsi zen arte, eta Europako Sari Nagusiko arauak abesti batetik bestera txalo egitea debekatzen duenez, «oso kontzentratuta» irten zirela nabarmendu du Imazek: «Abesti batetik bestera txaloak daudenean, beste modu batera egoten zara eszenatokian; nolabait, erla-

xatu egiten zara. Bagenekien txalorik ez zegoela, eta oso kontzentratuta abestu behar genuela pentsatuz joan ginen; egin beharreko lana behar bezala egiteko helburuz». Honen harira, hainbat ezagunek «kontzentratuegi» zeudela eta «hotz samar» aritu zirela esan omen zieten, baina abeslari tolosarrak azaldu duenez, «hori zen helburua, zentratuta egotea».

KUP Taldea izan zen eszenatokia sartzean txalo gehien jaso zituena. Euskaldunek pieza laburragoak aukeratu zituzten italiarrak baino, eta XVI. mendeko autoreekin hasiz, XX. mendeko egileen obrekin amaitu zuten saioa.

Behin euren saioa amaitu zutenean, KUPeko kideak «oso tentsazio onarekin» geratu ziren: «Ahalik eta hobekien egin genuen lana, eta konforme geunden

horrekin», nabarmendu du Imazek.

Sari nagusian parte hartu zuten gainerako abesbatzen mailari dagokionez, berriz, KUPeko kideak ikusleagoan zegoen jendearen iritzia izan zuten irizpide nagusi. «Gure lanak bukatuta, zuzenean kalera irten ginen, eta azkenean, jendearen pertzepzioarekin geratu ginen», dio Aitor Imazek. Epai-mahaia bere erabakia jakinarazi aurretik, 10 minutuko atsedenaldia izan zen Leidorren, eta tartea horretan izan zuten KUPeko abeslariak, emandialdiaren nondik norakoak ezagutzeko aukera: «Batzuek esaten ziguten suediarren eta gure artean zegoela euren ustez. Orduan, harrituta geratu ginen, ez baikenuen pentsatzen halakorik esango zigutenik. Bagenekien alemaniarrek ere oso onak zirela, eta neska hungariarrak ere bai. Azkenean, suediarrek irabazi zuten, baina oso-oso pozik gaude jendeak esan dizkigun gauzeekin».

Aitor Imaz, gainera, tolosar moduan ere bereziki pozik agertu da, Leidor aretoa bete-betea egon baitzen joan den larunbatean: «Erakusleihu modukoa izan da abesbatza guztientzat, eta bizipen bat gehiago dugu orain; oso positiboa izan da».

### Suediarrak garaile

Kantua eta musika interpretazioarekin nahastuz, eta saioko errepertorioarekin garaikideen arteko

## Epaiarekin, auzirik ez



Iritzia  
Migel Zeberio  
Koru zuzendaria

Ia bi asteko koru uholdeari benetako ibaiarena gailendu zaio. Nonbait, naturako jainko-jainkosek, musikaren edertasunak jarrai zezan nahilukete eta haserretu zitzaizkigun. Guk, aldiz, atsedentxo hartzeko gogoz gaudela onartu beharko dugu.

Azken saioak Europako Abesbatza Kantuaren Sari Nagusia zerkargigun. Ikusminaren neurria, sarrerak agortu ziren. Bost talde eta epai bakarra eta nabarmena. Kontua, lehia giro bortitzean, taldearen balibideei ahalik eta etekin handiena ateratzeko gai izatea da. Suediako Kamera Koruak bete zuen egokien baldintza. Epai-mahaia oniritzia aurkitzeaz gain, entzulegoa atsegintzeko saiakerarik zentzudunenaren hautua egin zutelakoan nago. Berpizkunde txukunaren ondoren, Rachmaninoven errusiar doinu ortodoxoekin hasterako, entzulearekiko lotura lortu zuten, indar jokuak tentuz erabiliak. Talde ongi egituratu eta bateratuak, ziurtasun handiz lanean, erromantikoei errepasoa egin, eta L. Berioeren *Money* obraren izaera katramilatuari muzin egin eta antzezteko aukera ere ez zuten galdu. Linnberg-en herri doinu goxoak azaltzeko, lotsarik gabe atseginez ase gintuzten eta *Poulenc* gorabeheratsuaren ondoren kondaira politean agurtu zitzaizkigun. Beste muturrean kokatuko nuke Erromako korua, epaiztuen gainontzeko, lehen mailakotzat ditugunen perfektutasun trazarik gorde. Whitacren Leonardoren ametsetan oinarritutako obrari, originaltasune-

tik haratago argitasun falta osatu nion. Alemaniako Consonok soinu tresna polita erakutsi zuen. Eztandatsu hasi eta amaieraruntz erritmikotasuna azaldu bitartean, zehaztasunez aritu ziren. Malgutasun nahikoaren ezak edo hitz jarioaren lautasunak, astun xamar egin zuen beraien kontakizuna. Euskal ordezkariak lehiatzeko grinaz atera ziren. Baltas maisuaren lanerako eskemak, korurako obra esanguratsuak direnen bilduma osatu zuen. Une oro nabarmendu zuen, obra horiek gordetzen dituzten ñabardura eta zertzelada goxoak argitaratzeko lan eskerga egina zuela taldearekin. Berpizkundearen elkarriketa garbi eta oihartzun joko politik, Brahamsen hungiarratasunak, Faureren gehiegizko arriskuek, guztiek, zerbait gehiago izan zitekeela adierazi nahi zuten; Ko Matsushitaren *Jubilate Deo* obrak taldearen alde emankorra eta erlaxatua erakutsi zuen arte. Harritu ninduen, talde honek euskal konposagileen artean, lehiaketa honetarako neurriko ezer aurkitzerik ez izanak. Hungariako Cantemuseko neskek ez zuten bere egunik hobereena izan. Berpizkundeko hiru obrez osatutako lehen ahapaldiak, tenkatasunez harrapatu zuen abesbatza. Arratsaldeko emanaldi horretan, guztien artean Tolosako oholztan eskarmentu gehien duen D. Szabó zuzendariak, kostata lortu zuen taldea bere onera ematea. Laugarrengoa, G. Orbánen *Gloria* ederra, piano laguntzaile bikainarekin, ia erabat, hungariar literaturari eskainitako tarte esanguratsuari eman zion hasera. Orduan bai, unisono hobezinak, erritmo eta dinamika perfektuak, esaldi joskerak hegalarik, maisuaren energiaz beteriko keinuek erantzun egokiena lortu zuten. Eta horrela, guztien aukerak irentsi zituen antzokiak, eta txalo artean joan zen horrenbeste daboran metatutako adrenalina.

eskainiz, Suediako Svenska Kammarkören abesbatzak irabazi zuen, pasa den larunbatean Tolosako Leidor aretoan ospatu zen 23. Abesbatza Kantuaren Europako Sari Nagusia.

Eurekin batera, Italiako Coro Città Di Roma abesbatza, Alemaniako Consono Chamber Choir abesbatza, Hungariako Cantemus Children's Choir abesbatza eta Euskal Herriko KUP Taldea abesbatza aritu ziren oholta gainean.

Italiarrak izan ziren lehenak, eta indartsu hasi zuten saioa, *Cantate Domino* obrarekin.

Lehenengo zatia Alemaniako Consono Chamber Choir abesbatzaren saioarekin amaitu zen. Indartsu hasi ziren hauek ere, eta

Moses Hogan-en *Elijah Rock* abestiarekin, erritmoz bete zuten euren saio amaiera.

Svenska Kammarkören abesbatza suediarrek hasi zuen Europako Sari Nagusiko bigarren zatia. Zehaztasunez interpretatu zituzten obra guztiak, bolumenaren bidez teknika eta abilezia erakutsiz. Luciano Bero autorearen *Money* obra izan zen deigarrietariko bat, musika antzerkiarekin uztartu baitzuten suediarrek. Azkenik, iaz Tolosan irabazle suertatu ziren Hungariako neskek abestu zuten: Cantemus Children's Choir. Abesti laburrez osatu zuten errepertorioa, eta aire freskoa eman zioten emandialdiari, txalo artean.



→ **Laburrak****Jai Alai jatetxeko sukaldariaren ikastaroa**

**BIDEGOIAN** Bidania-Goizatz Kultur Taldeak sukaldaritzaren ikastaro bat antolatatu du, Jai Alai jatetxeko sukaldari batekin. Ikastaroa hilaren 15ean, 21ean eta 28an izango da, 18:00etatik 21:00etara, Sayaz Elkartearen. Izena 659752182 (Arkaitz) telefonoz eman daiteke. Gaur amaitzen da epea.

**Udalak lehen jendaurreko balorazioa egingo du**

**IBARRA** Udalak lehen jendaurreko balorazioa egingo du osteguneko, kultur etxean. Herritarrek bertara gonbidatzen ditu, dituzten zalantzak argitze-ra edo informazioa entzutea.

**EAJ Kale Garbiketa ordenantzarekin kezkatuta**

EAJk guztientzat «arau berdinak» izan daitezten, ordenantza betetzeko eskatu dio Bilduri

**M. Ugartemendia** Tolosa

Tolosako EAJko udal taldeak, udal gobernuari indarrean dagoen Kale Garbiketa ordenantza «bete dezala» eskatu dio.

2010eko azaroaren 30ean egingandako osoko bilkuran eman zitzaion lehen onespina Kale Garbiketaren ordenantzari. Ondoren jendaurrean jarri zen, eta EAJren hitzetan «3 aleazio aurkeztu ziren eta hauei erantzuna eman zitzaion». Horrez gain, partaidetza prozesu bat eraman zen aurrera.

Garbiketa ordenantzaren informazioa eskura jarri zen, ondoren bilera irekiak antolatu ziren eta ahalik eta zabalena izan zedin deialdian interes berezia jarri zen.

Ordenantza honen onarpena, beraz, partaidetza prozesu baten emaitza izan zen. Bestetik, garbigunean berrerabilpenerako txokoa sortzeko proposamena bilera hauetako batean mahaigaineratu zuten EAJkoek. Mankomunitateko batzarrera eraman zuten proposamena, «aho batez onartu zen eta egun aldundiarekin harremanetan dago mankomunitateak, berrerabilpenerako txokoa San Blaseko garbigunean ahalik eta azkarren martxan jartzeko».

Ordenantzaren behin betiko maiztaren 12an onartu zen. Onartu aurretik informazio kan-

paina bat egin zen, EAJren uestez «kale garbiketarako herritar guztien partaidetza» eskatzen duelako eta «partaidetza hori barneratzeko ordenantza bera barneratzea ezinbestekoa» delako.

Aipatu ordenantza hau urriaren 1etik indarrean badago ere, orain arte «ezer ez dela egin» ueste du EAJk. Ondorioz, «kaleak eta bazterrak, garbiketa ikuspuntuetik zikinagoak daudela» dio EAJk eta gainera, «hainbat herritarrek eginiko lanari eta emandako irizteiei muzin egin zaiela» ueste dute.

Hauteskundeak direla eta kalean jarritako hauteskunde aurreko kartelekin ere kezkatuta dago Tolosako EAJ: «Udala bera da indarrean dagoen ordenantza kunitzetan ez duen lehena, barandilla guztietan eta zubi ixkinetan kartelak jarri».

Honela, EAJk Bilduri ordenantza honetan sinesten ez badu, osoko bilkura batean «indargabetu dezala». Bestela, «udalak onartutako arauen kontra» egiten baitu.

Gauzak honela, Bilduri «indarrean dagoen ordenantza errespeta dezala» eskatu dio Tolosako EAJko udal taldeak.

Kale Garbiketaren ordenantza ez betetzeak atarian dauden hauteskundeekin zerikuri ote duen galdetzen du EAJk. Eta kartelak hauteskundeetan jartzaren diren paneletatik kanpo jarri behar badituzte, ez dakitela «zentzua duen udaleko obra brigadak alperrikako lana egitea, panelak garbitu eta jarri». Azkenik, horren berri talde politiko guztiei ematea eskatzen diete, guztientzat «arauak berdinak behar dutela izan» ueste baitute.

**Saguzarrak**

**Bioaniztasunetik**  
Jon Ander Galarraga  
Biologia

**B**a al zenekien 2011ko urtea saguzarren nazioarteko urtea dela? Eta nola ez, biodibertsitatea eta ekokultura lantzen duen dibulgazioaren txoko sume honek animalia bitxi hauei zutabe bat eskaini nahi die.

Saguzarrak, zu eta ni bezala, ugaztunak dira: odol beroa dute, beraien kumeak amaren sabele-

an garatzen dira, esnea ekoizten dute eta ilea daukate. Baina, saguzarrak bereizten dituen ezauzgarria, hegalariak direla da. Gaur egun dauden ugaztun hegalari bakarrik!

Animalia batek hegan egiteko ezinbestekoak ditu hegalak, hegaztiekin lumak daukate, baina saguzarrak ugaztun izanik, ez dute lumarik eta hegan egiteko eskuetako azala erabiltzen dute. Saguzar baten hego bati begiratu badiogu, esku handi bat dela ikus genezake, bere bost hatzekin, eta hatz bakoitzaren artean guztiz luzatutako azal bat dago, non hegalaren lana egiten duen. Gure eskua zabaltzen badugu, hatz arteko mintz hau ikusi ahal dugu, noski gureak ez du hegan egiteko balio! Ez egin frogarik.

Baina, hegan egiteko ez da

nahikoa hegoak izatea, ahal bada pisu gutxiko animalia izan behar du, horretarako saguzarren hezurren barrenean airez betetako gelauneak daude, hezurren pisua arinduz.

Kuriositatez, hegaztien hezurrekin ere berdina gertatzen da, nahiz eta hauek ez daukaten inongo ahaidetasunik saguzarrek: arazo berdinen aurrean, konponbide berdinak.

Euskaraz 'sagu-zahar' deitzen diegu eta Europako hainbat hizkuntzetan ere saguei egiten die erreferentzia beraien izenak, baina animalia hauek ez daude saguekin zuzenean ahaidetuta, kategorriengandik, eta zu eta ni bezalako primateengandik ahaidetasun estuagoa dute.

Saguzar espezie ugari ditugu Euskal Herrian, zoritxarrez espezie asko galtzeko zorian dauden arren. Taldean bizi dira eta kobazulo bat ixten bada edo etxebizitza bat erori, saguzar ale ugari hilzen dira batera.

Ziur nago, momentu honetan saguzarrei buruzko hainbat galdera datorkizkizula burura, ona hemen galderarik arruntenak:

*Dracula* filma ikusi berri dut, egia al da saguzarrak izaki odoljale arriskutsuak direla? Euskal Herrian ditugun saguzarrak ez, baina, Ameriketako Estatu Batuetan badaude odoljaleak diren saguzar txikiak, banpiroak deritze eta ez dira arriskutsuak.

Beraz, saguzar batekin topatzen bazarete ez daukate lepoko bat ipini beharrik, Euskal Herriko saguzarrak orokorroean inbentzio eta fruituez elikatzen baitira. Ustekabe batean saguzar batek kozka egiten badizute ez zarete banpiro bihurtuko, hori bai, amorruren aurkako txertoa ipini.

Saguzarrak itsuak al dira? Ez. Saguzarrek bista ona daukate, baina gautarrak direnez soinuaren bidez "ikusteko" zentzumen bat dute. Gau ez euritsu batean farola baten ondoan ipintzen baga-

ra eta "tzip-tzip" moduko bat entzuten badugu, saguzar bat ehitzen dabilenean igortzen duen soinua entzuten ari gara. Zentzumen berezi honi, ekolokalizazio deritzo eta laupabost zutabe behar harko nituzke bere osotasunean azaltzeko eta zutabetxo xume honek zoritxarrez ez du gehiagorako ematen.

Apaiza naiz eta nire herriko elizan saguzar talde handi bat dago, nola bidali ahal ditut? Metodirik egokiena, belar berdearen kea da. Goizez lo daudenean, beraien azpian belar berde apur bati su eman eta kea usaintzen dutenean beste leku batera alde egingo dute.

Nire irakurlearen artean, saguzarrek sortzen duten beldurra eta ez jakintasuna gutxiutu delako esperantzarekin, hurrengo zutabera arte agurtzen naiz.

Hala ere, *bioaniztasunetik@hotmail.com* helbidean egongo naiz edozein zalantza argitzeko prest.




# EUSKADIREN ALDE

Prest gaude. Irreitasuna, esperientzia eta bizitasuna ditugu. Egunero ahalegintzen gara. Horregatik konfiantza eduki dezakegu. Irteletako gal izango gara. Aurrera egiteko gai.

JOSU ERIKORKA

ARANTXA TAPIA

www.eaj-pnv.eu







# Muñoz eta Arbillaga XXI. Herri Kroseko garaile

142 parte hartzaile izan ditu lasterketak; lehenengo herritarrak Igor Maiz eta Tina Agirre izan dira

**Iñigo Terradillos** Ikaztegieta

XXI. Herri Krose izan zen iragan larunbatean Herrigintza elkarteak Ikaztegieta Udalaren laguntzarekin antolatuta. 142 parte hartzaile izan zituen, eta 10 kilometroko bidea amaizten lehenak Pedro Muñoz azkoitiarra eta Amaia Arbillaga tolosarra izan ziren.

Gizonezkoetan lehenak 39:17ko denbora egin zuen. Bigarrenak, Zumarragako Juanjo Igarzabalek 31:52ko denbora, eta hirugarrenak, hau da, Zarauzko Iñigo Eizagirrek 34:01ekoa.

Emakumezkoetan, bestalde, Amaia Arbillaga garaileak 39 minutu eta 17 segundo behar izan zituen ibilbidea amaizteko; bigarren geratu zen Uxune Tena andoaindarrak 40 minutu eta 29 segundo eta hirugarren izan zen Marta Garcia gasteiztarrak 46 mi-



Larunbat arratsaldeko herri kroseko une bat. ASIER IMAZ

nutu eta 11 segundoko denborarekin bukatu zuen lasterketa.

## Beteranoak eta herritarrak

Lasterketa amaizten lehen herritar gizonezkoa Igor Maiz izan zen, 39 minutu eta segundo bateko denborarekin; eta lehen emakumezkoa, Tina Agirre, 54 minutu eta 20 segundorekin.

Kroseko lehen betearanoa Olaztikoa Raul Audikana izan zen, 54:21eko denborarekin, eta lehen

emakumezkoa, Baliarraingo Agurtzane Garmendia, 50 minutu eta 31 segundoko denborarekin.

## Antolatzaileak «gustura»

Asteburu osoan bezala, euria nagusitu zen larunbat arratsaldean, baina, hala ere, antolatzaileak «gustura» azaldu dira parte hartzaile kopuruarekin. Bestalde, guztia «oso ondo, aurreikusitako bezala» igaro zela adierazi dute.

# Eskualdeko pilotariak garaile lehen jardunaldian

Emakumea Pilotari Txapelketako lehen partidak jokatu dituzte Arozenak, Garmendiak eta Mendizabalek

**I. Terradillos**

Larunbatean ekin zion Gipuzkoako Euskal Pilota Federazioak antolatzen duen Ezker Hormako Emakumea Pilotari Txapelketari. Eskualdeko hiru pilotariak, Alegiako Ainhoa Garmendiak, Anoetako Maider Mendizabalek eta Lizartzako Nagore Arozenak, hartzen dute parte bertan, eta hiru euren partidak irabazi zituzten.

Ordizian Garmendia-Semper bikoak 30 eta 16 irabazi zuen Etxabe-Errastiren aurka. Irazustabarrena-Argain bikoteak, berriz, 25 eta 30 egin zuen Redondo-Arozenaren aurka. Bigarren mailan, Tijero-Beldarrainek 30 eta Arriola-Ugaldek 21 egin zuten.

Idiazabalen, bestalde, Etxegia eta Maider Mendizabal bikoak 30 eta 13 irabazi zuen Evaristi-Maddi Arozenaren aurka.

## Hurrengo jardunaldia

Hurrengo partidak Zizurkilen eta Villabonan jokatuko dituzte larunbat arratsaldean. Batetik, Arozena eta Garmendia ariko dira aurrez aurre, eta Mendizabal-Etxegia Manzisidor-Errastiren aurka ariko dira.



Behan, ezkerretik lehen, Garmendia eta hirugarrena Arozena, Ordizian iragan larunbatean. HITZA

# Olaizolaren aurkako finalaurrekoan du azken aukera Abel Barriolak

**I. Terradillos** Leitza

Juan Martinez Irujo eta Abel Barriolaren arteko finalaurreko partida ez zen leitzarraren aldeko emaitzarekin amaiztu. 22-9 garaitu zuen Iberoko pilotariak Eibar-ko Astelenan jokaturiko partida, zuzenean Lau t'erdiko txapelketako finalerako txartela lortuz.

Barriola erraz garaitu zuen Irujok, baina leitzarrak badu finalean berriro ere bere aurka lehiatzeko aukera. Horretarako, Olaizolaren aurkakoa irabazi beharko du.

# Aizpurua tolosarrak irabaziz hasi du Binakako Erremonte Txapelketa

Berak eta Ezkurrak osaturiko bikoteak larunbatean izango du hurrengo partida Zeberio-Ionen aurka

**Iñigo Terradillos**

Doneztebeko Ezkurrak eta Aizpurua tolosarrak osaturiko bikoteak ezinhobeto ekin dio Binakako Azysa Erremonte Txapelketari. Izan ere, larunbatean jokatu zen txapelketako lehen partida, Ezkurra-Aizpurua II eta Urtasun-



Aizpurua, larunbatean. MAIALEEN ANDRES

Etxeberria IIIren artekoa, eta 40-31ko emaitzarekin irabazi zuten lehenek.

Atzetik hasi ziren Ezkurra eta Aizpurua, baina pixkanaka partidaren sartuz joan ziren, merezimenduz aurkariei gailendu arte. Tolosarra txapelketa ofizial batean estreinatzen da, beraz, hasiera polita izan duela esan daiteke.

Txapelketa honetako eskualdeko beste erremontista Patxi Zeberio elduaindarra da. Larunbat honetan jokatuko du partida berak eta Ionek osaturiko bikoteak, Ezkurra-Aizpuruaen kontra.

## Irudia > Ibarra



# IBARRA B, BIGARREN

Larunbatean Lauko Euskadiko Sokatira Txapelketako lehen saioa jokatu zuten Adunan. Gizonezkoen 320 kiloko lehen jardunaldian 11 talde lehiatu ziren, bi multzotan banatuta, eta horien artean Ibarra A eta Ibarra B izan ziren. A multzoan Abadiño A taldea izan zen nagusi, tiraldi guztiak irabazita. Ibarra A bosgarren geratu zuen. B multzoan, berriz, Sokarri B gailendu zen, eta Ibarra B bigarren sailkatu zen. Hurrengo jardunaldia Ezpeletan izango da, larunbatean. A. IMAZ

## Iragarki laburrak

### ALOKAGAI

■ **Tolosa.** Tolosa erdialdean, alzariz guztiz hornitutako etxebizitza alokatzen da; bi logela, komuna eta egongela ditu eta bizitzera sartzeko moduan dago. Hileko kuota 600 eurokoa da. Deitu 619 645256 zenbakira.

### LANA

#### ■ Emakume euskalduna.

Etxeko lanak egin eta edadeko pertsonak zaintzeko, emakume euskaldunak bere burua eskaintzen du. Interesatuak dei dezate ondorengo telefono zenbakira: 655 747159.

**Ibarra** ◊**AMAIUR 'ZUBIAK ERAIKITZEN'**

Azaroaren 20ko hauteskundeei begira, Ibarra Amaiurrek ekitaldi berezia egin zuen larunbatean. Herritar ugari elkartu zen Ibarra zubietan barrena, euripean, bideo bat grabatzeko asmoz. *Zubiak eraikitzen* goiburupean, Idoiatatik plazarainoko ibilbidea egin zuten. Ondoren, udaletxeko arkupean, Amaiurreko Maite Aristegi zerrendaburuak esker hitzak izan zituen ibartarrentzat, eginiko ekimenagatik. A. IMAZ

**Tolosa** ◊**AUTOBUSETIK ERE KANPAINAN**

EAJren Gipuzkoako zerrendaburua, Arantxa Tapia, Tolosan izan zen larunbatean. Al-derdiko kideekin batera hauteskunde kanpainako ekitaldia egin zuen Arantxa Tapiak Trianguloa plazan. Hori bai, euria ari zuenez, EAJko kideek autobusetik hitz egin zuten. Kanpainarako erabiltzen ari diren autobuseko megafoniatik entzun zituzten herritarrek EAJren hauteskundeei begirako proposamenak. L. URKIZU

**Alegia** ◊**EURIPEAN, KANTUAN**

Igandean, kantuak ez zuen lortu bezperatik hasitako euri-jasarekin amaitzea. Hala ere, giro bustiak ez zuen eragozpenik sortu Txintxarri Eguna ospatzeko garaian, eta beste behin, giro paregabean egin zuten abesbatzen eguna. Eguneko ekintza nagusia emanaldia izan zen: jendetsua eta oso txalotua. HITZA

**Tolosa** ◊**FRISOI ONENAK FERIALEKUAN**

Larunbat goizean zehar Tolosako Ferialekuan behiak izan ziren izarrak, bertan jokatu baitzen Euskal Herriko III. Frisoi Txapelketa. Adin ezberdinen arabera, maila desberdinetako sariak banatu zituzten bertan. Horrez gain, hobekuntza genetikokoan egin diren lorpenak ere ezagutzera eman ziren. A. IMAZ

**Zizurkil** ◊**AUTORIK AZKARRENEN PASABIDE**

Larunbat arratsaldean Donostiako XIII. Hiri Rallya jokatu zen. Bertan parte hartu zuten autoak Zizurkilgo errepideetatik abiatu ziren. Ondoren, ibilbideari jarraituz Asteasu aldera joan ziren. Eskualdeko herritar ugari elkartu ziren ibilbideetan barrena, rallyko autoak ikusteko asmoz. A. IMAZ

**Villabona** ◊**IKASLEEN TOPAGUNEA**

Ikasle Abertzaleek Ikasle Eguna 2011 antolatu zuten Villabonan, larunbatean. Goizean ikastaroen txanda izan zen, eta ondoren, herri bazkaria egin zuten. Arratsaldean, aisia nagusitu zen, nahiz eta manifestazioak ere bere lekua izan zuten. Iluntzean hasitako kontzertuen laguntzat jai giroa goizaldera arte luzatu zen. A. IMAZ



**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.M.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Rebeka Calvo  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefonoa:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@hitza.info.  
**Webgunea:** tolosaldea.hitza.info

**Zuzendariordea:** Imanol Garcia. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitate:** 661 678 818 tolosa@bidera.eu.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 032. tolosa@hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aitzondo@hitza.info.  
**Anoeta:** 687 410 022. anoeta@hitza.info.  
**Ibarraldea:** 687 410 118. ibarraldea@hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@hitza.info.  
**Leitza:** 687 410 118. leitza@hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak S.M.ko kideak:**



eta Tolosaldeko eta Leitzaldeko beste 77 eragile

**Hitza-k Bai Euskarari**



**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:**

Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Arnezeta, Anoeta, Areso, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Hernialde, Irura, Leitza, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## Agurrak



### Zorionak!

**Maria Mujika (Anoeta).** Pasa den larunbatean urteak bete zituen. Zorionak etxekoen eta Migelen partetik.



### Zorionak!

**Inhar Ortiz Vicente (Larraul).** Gaur 4 urte. Zorionak TXURIURDIN, etxeko guztien partetik eta bereziki aita, ama eta zure arreba Nahiaren partetik.



### Zorionak!

**Manex Tejeria Larrarte (Zizurkil).** Atzo 6 urte. Zorionak etxeko guztien partetik.

# Jexux Mari Irazu eta Amaia Agirre, Gpuntuako finalerdietan

Berrobin jaiotako Unai Muñoa Azpeitiko saioan aritu zen; ez du hurrengo etaparako txartelik lortu

### Rebeka Calvo

Azpeitian, herenegun izan zen Gpuntu txapelketako final laurdenetako azken saioa. Bertan, Berrobin jaiotako Unai Muñoa aritu zen, Jokin Uranga, Ane Labaka, Iñaki Apalategi, Iker Zubeldia eta Arkaitz Oiartzabal *Xamoarekin* batera.

Jokin Uranga izan zen puntu gehien batu zituen, eta berarekin batera Iker Zubeldia eta Iñaki Apalategi lortu zuten finalerdietarako txartela. Azpeitiko gainontzeko bertsolariak, Unai Muñoa, Arkaitz Oiartzabal *Xamo* eta Ane Labaka, txapelketatik at geratu dira jada.

Amaia Agirrek beraz, ia asmatu zuen pasa den astean TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAN egitako apustuan. «Azpeititik baitez lau pasa aurrera», esan zuen orduan Agirrek, eta ia asmatu, hiru pasa baitira.

### Tolosako saioa

Finalerdiak hiru bertso saioetan banatuko dira, eta saioak Arrasaten, Tolosan eta Hernanin izango dira. Tolosako saioa, hilaren 27an izango da, 17:30ean Usabal kiroldegian eta Egoitz Aizpuru izango da aurkezlea. Aipatu behar da, era berean, bertso saioan Jose Ariztimuño *Aitzolen* fusilamenduaren 75. urteurrena izango dutela gogoan.

Finala, aldiz, abenduaren 18an

izango da Donostiako Ilunbe zezen plazan eta antolatzaileek sarrearak aurrez erosteko eskatu dute.


Horretarako bide hauek direla diote antolatzaileek: Internetez [www.gpuntu.com](http://www.gpuntu.com) gunean; azaroaren 26tik abenduaren 4ra jokatuko diren hiru finalurrekoetan, hau da, Hernanin, Arrasaten edo Tolosan; edo Gipuzkoako hainbat herritako ohiko saltokietan, nahiz eta saltoki hauetan sarrera arruntak soilik salduko diren (bazkide eta gaztetxoek Internetez erosi beharko dute).

Hauek dira Tolosaldeko saltokiak: Alegiako Jubilatuen tabernan, Amezketako Sasurain tabernan, Ikaztegiatoki Toki Alai tabernan, Tolosako Kantabriko

tabernan, eta Villabonako Amaia kafetegian.

### 18 bertsolari

Finalurrekoetan ariko diren 18 bertsolarietatik bi dira Tolosaldekoak: Larraulgo Jexux Mari Irazu (502 puntu), eta Villabonako Amaia Agirre (478,5). Hauek dira gainontzekoak: Beñat Gaztelumendi (501,5), Aitor Sarriegi (494), Jon Martin (494), Jokin Uranga (488), Felix Zubeldia (482), Alaia Martin (481), Iñigo Mantzisor *Mantxi* (480), Unai Agirre (480), Agin Rezola (479,5), Beñat Lizaso (479), Iker Zubeldia (478), Nerea Elustondo (474,5), Iñaki Apalategi (472,5), Iban Urdangarin (472), Iñigo Izagirre (471,5), eta Ainhoa Agirreazaldegia (468,5).



Irazu edo Agirrek lortu dezakete Gpuntu txapela. IGARCIA

## Agenda

### DEIALDIK

- **Tolosa.** Orain gutxi Saharan bahitutako kooperanteak aske uzteko eskatzeko elkarretaraztea egingo du gaur, Tolosaldea Sahararekin elkarretak. 19:00etan bilduko dira Trianguloa plazan.
- **Tolosa.** Tolosaldea Osasun Publikoaren Alde plataformaren bilera gaur, 19:30ean kultur etxean.
- **Berastegi.** Kultur astearen barruan gaur, 19:00etatik aurrera kiropaktikari buruzko hitzaldia Michel Marmieren eskutik. Eskolako garbanan izango da hitzaldia.

### ERAKUSKETAK

- **Tolosa.** Tolosako Nazioarteko Txotxongilo Zentroan Cannes-ko Arketal talde-tailerrari (Frantzia) eskainitako erakusketak ikusi daitezke. 150 pieza daude. Otsailaren 12a arte ikusi daitezke.

## Farmaziak

### GAUR

- **Tolosa.** Olarreaga, M. Martin Jose Iraola, 10. Telefonoa: 943 67 24 38.
- **Arribe.** Garmendia, A. Kale Nagusia. Telefonoa: 112.
- **Iruztzun.** Gastearena, M. Amaya kalea. Telefonoa: 112

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



hitzak

HITZAK harpidedunentzat **2 sarrera** pare ditu

Azaroak 12 - Larunbata  
20:00etan  
Donostiako Ilunben

**LAGUN ARO GBC**  
Assignia Manresa  
saskibalo partida

Zozketan parte hartzeko deitu **943 65 56 95**



sarrerak

